

KAZETARITZA-LANA
HEGO EUSKALERRIAN 1895.ean
NUNTZIATURAKO IKUSPEGIA

I. Sarrera

Joan zen mendearen azkenaldiko kazetaritza iharduerak ilusio handiko hastapenak izan zituen argitalpen berrietan. Argi ikusten zuten zenbaitek prentsako propaganda iharduerak, batez ere, alderdi eta mugimendu politikoentzat eta heraien ideologientzat zuen indarra.

Elizaren kezka ere nabaria zen. Hain zuzen ere, aldizkaria gizarteko ongiaren eta moralitatearen alderako zein aurkarako erabil zatekeen baliabidea zen.

Leon XIII.ak (1878-1903), gizarteari buruzko kezka bizia zuelarik «Rerum Novarum» idatzi zuen Aita Santuak, Espainiako estatuan Eliza katolikoak zuen egoera xehetasunez ezagutu nahi izan zuen; hori, jadanik kardinale izendatutako Rampolla nuntzioa Estatuko Idazkari izendatua izan zenean gertatu zen. Honek xehetasun osozko txostenak eskatu zituen; horietako bat (bosgarrena) Espainiako egunkari eta aldizkarietara zegoiena izan zen.

Azken aldi honetan oso ikertzaile ezaguna den *Vicente Cárcel Ortí* Jaunak eginiko liburua (*León XIII y los católicos españoles. Informes Vaticanos sobre la Iglesia en España*. Inúnea, 1988. 954

orr.) kaleratua izan da. Liburu interesgarri honen orrialdeetatik hartu ditut jarraian eskaintzen dizkizuedan berriok.

Bertako datuetan Estatu osoko egoera jasotzen bada ere, nik Hego Euskalerriri dagozkion aipamen estaditiskoak ekarriko ditut bakarrik.

Txostena Alessandro Bavona Madrid-eko Nuntziaturako idazkariak italieraz idatzita dago: Rampolla-k 1895.eako Urtarrilaren 25ean eskatutako txostena, urte bereko Abenduan burutua izan zen. Vatikanoko Artxibategietan aurkitzen da. Madrideko nuntzioa Seferino Cretoni zen (1893-1896).

Txosten honen laburpenari begiratzen hasi aurretik, XIX. mendeko azkenaldiko politika eta erlijio egoera gogora ekartzea komeni zaigu. Garai horretan mugimendu politiko eta erlijioso berri indartsuak agertu ziren. Ez da ahaztu behar, bestalde, urte batzu lehenago Elizak ekonomikoki (ondareari zegokionean), espiritualki eta fisikoki jasandako jazarraldi larria: hain zuzen ere, botere politikoen eskutik jasotako zenbait heriotze, komentu-itxiera, konfiskazio, desamortizazio... eta era guztietako bortxaketa eta bidegabekeriak.

Baina XIX. mendearen azkenaldian nahiko aldaturik ageri zen egoera eta erlijio-birbizkundea nabari zen.

Testuinguru honetan kokatutako aipaturiko 1985.eko txostenetik hartutako puntu batzu aztertuko ditugu, bada.

II. Txostena

A. Prentsa eta gizartea

1. Ohitura berriek, bizimodu sistemak, gobernu metodo berriek, komunikabideen erraztasunak, irakaskuntzaren hedapen handiagoak, gizatalde guztiak jota dituen arinkeria eta handinahi lehaiak, egunerik egunera gauza berrietarako biziagoa den egarriak osotzen dute bizitza egin behar den lekuko ingurugiroa. Gizarteko egoera hau horrela delarik, ez da bat ere harritzekoa hain izugarria izatea kazetaritzak gaur egun hartu duen garapena,

gizarte berriak ezinbesteko egintza bihurtu duen gizarte bizitzako elementu berritza hartu behar delarik.

2. Alferreko zera da, beraz, kazetaritzaren aurka aldarrika egitea eta ezinbesteko erremedioa aldizkaririk ez irakurtzeko agintzea.

Ez da bidezkoa, bestalde, alor hori bertan behera etsaiaren esku uztea edo eta hainbestearainoko galerak eta hondamenak sortu dituen erlijioaren aurkako kazetaritzaren uholde hondagarriari dikerik ez jartzea.

Honen irtenbide, alde batetik, herriari gertakari publikoei buruzko xehetasun osozko erizpenak edo eta zientzia eta literatur mugimenduei buruzko berri zehatzak emango dizkion aldizkariak eskaintzea da eta, bestetik, sofisma, errakuntza eta ustelkeriaren garaipenari imoki aurre eginez, sinesmen katolikoaren gotorlekuen aurka setatiro jasotzen diren erasoaldiak atzera bultzatzen direlarik, beren ahaleginak egiaren eremua hedatzera eta guztien gogoetan Elizaren doktrina salbagarria etengabeki adieraztera zuzentzea.

6. Erlijioa abiapuntutzat hartuz, aldizkako prentsa hiru multzo handitan sailkatzea jo izan da komenigarritzat: hots, printzipio katolikoak defendatzen dituenak, ideia liberalak izan arren erlijio sentipenik erasoten ez duena eta, azkenik, helburutzat errakuntzak eta erlijioabetasuna zabaltzea duena.

7. Estatistikatik, prentsa katolikoak, aldizkariaren kopurua zein bakoitzaren hedapena kontutan harturik, ez duela hain sakonetik katoliko den herri bati dagokion lekua betetzen eta ia hutsala dela arazo publikoetan eta nazioaren norakoak bideratzera deituriko gizonengan duen eragina aterako da.

8. Eta aditzera eman beharra dago, aldizkari liberaletan, sinesmenen eta erlijio erakundeen aurkako erasoetan, damua ez bada ere, gutxienez, geldialdia edo tregua nabaritzen dela.

Eta ez da benetan indartsuen jokaera, etsaiek leku abantailatsuagoak dituztelako edo eta hobeki antolatuta daudelako, norbe-

raren alderdikoan artean adore, kuraia, batasun eta antolamendurik ez dela eta beldurpean ezkutatzea eta burruka bertan behera uztea.

13. Ezar bezaio honako hau kazetaritza katolikoari eta argi agertuko da zenbateraino jokutzen duten doilorki, egoera negargarria ezagutzen dutelarik hobetzeko eta beraren goi helburuei erantzuna eman diezaioten garapen eta indar mailara eramateko ezer egiten ez duten katolikoek.

17. Presako konponbidea eta berehalako eragina lortzeko ezinbestekoa da, telegrama zein kanpoko eta barruko postatruke zerbitzu artatsuaren eta beren lanabidea misioa balitz bezala erabiltzen duten idazleen bidez, gaizkileek beraien argitalpenei eman ohi dioten interesa adinekoa izango duen aldizkari bat sortzea.

B. Kazetaritza modernoa: eraginkortasuna eta garrantzia

21. Kazetaritzak duen indarra adierazteko, ezinbestekoa da egoera hau aipatzea; eratutako boterea ez bada ere, gaur egun, zoritxarrez, ahulek eta handinahiek gora igoteko maila gisa erabiltzen dutela zuritua delarik begirunea baino beldur handiagoa sortzen duen gizarteko indar eta erakunde da.

22. Ez du legerik xedatzen, ez dekreturik ematen ez eta zigorrik jartzen; bere egintza askozaz sinpleagoa da: berriak jakinerazi, iruzkindu, eztabaidatu, eritziak ematea; hala ere pertsonengan zein eginkizun publikoengan mugarik gabeko eragina du. Eta, gaur egun beren buruak jakintsu edo indartsutzat ditzuztenek ere kazetaritzaren indarraren aurrean makurtu eta beraren uztarria jasaten dute.

23. Hainbatek, oster, galdetzen diote beren burei zein den fenomeno honen iturburua. Ez dabilta egiatik urruti, anonimotasunean eman ohi den harako misteriotasunean ezkutatzen datzala diotenak. Anonimotasuna da, zoritxarrez, kazetaritzaren eragin-

kortasunaren muina. Jendearen interesa hazi egin ohi da hizlariaren nortasuna ezkutatu egiten den adinean.

26. Kazetaritzaren indarra, bestalde, gizarte modernoaren egoerari zor zaio. Haize bolada indartsuen erasopen erori dira egonkortasunaren hormak eta egonezintasun jarkiezina nagusitu da bazterretan eta pertsona guztiengan.

28. Mende honetako gizarte astinaldian zehar kazetaritza batez ere politikoa izan zen. Herri xehea aintzinako erakundeak botatzera bultzatzen ziharduenez ez zuen bestelako ikerlanetara jo. Gaur egun aldatu egin da eta bere gaitasuna jakintza eta gizarte egintzako alor ezberdinetara hedatzen da; enziklopedikoa, unibertsala eta kosmopolitiko izan nahi du, denetarik zerbait irakatsi, mezua pertsona maila guztiei zuzendu eta herrialde guztiez aritzen delako.

Zer esanik ez, gehien irakurtzen diren aldizkariak, era guztietako jendeen jakinahia egokien asetzen dutenak izan ohi dira; eta berrien ugaritasuna eta gaurkotasuna izaten dira kazetari batzuen eta besteen arteko benetako nagusitasunaren ezaugarri.

Eta kronikak eztabaidaren lekua ordezkatu duenez, ez da baliozko kazetari edo idazle ospetsuengana jotzen, egintzen gora-behera guztiak ezagutzerik ez dutenean irudimena erabiltzen dakiztiela, asmamen-gaitasun egokiz hornituak diren kronista edo biltzaile artatsuengana baino.

37. Gizarte-mugimendua arretaz kontutan hartzen duen inork ezin lezake ahaztu kazetaritzak duen eragin izugarria; ez dago, hala ere, gure eskuetan, pertsonon iharduera alorrean alde guztietatik uholde baten antzera jotzen duen indar hau oztopatzea. Zuzendu eta ongiaren zerbitzura ekarri beharra dago, ezin baita alboratu gaur egungo eskakizunek beharrezko egin duten egoera hau.

39. Atseginez taiutzen ditugu hemen prentsa katolikoaren zereginetako ezaugarri nagusiak eta gizarteari ekar diezazkion onura handiak. Mundua aldatuta, goitik behera aldatuta dugu.

40. Lehenago ere esaten genuen bikoitza dela prentsa katolikoa bilatu behar duen helburua: erlijioaren aurkako edo erlijiorik gabeko kazetaritzak sortutako kalteak konpontzea eta ongiairen alde aritzea, horrela egiaren eta zuzenbidearen defentsa eta erreibindikazioa eginez.

C. Hego Euskalerrrian argitaratzen ziren aldizkarien zerrenda (alfabetoaren arabera)

Aldizkari bakoitzaren datuak jasotzen honakook hartzen dira kontutan: Izena, argitalpen tokia; sortze urtea; argitaratze egunak; ale kopurua; jokera politikoa edo eta, politikoa ez denean, erabiltzen dituen gaiak; Eliza, Egoitza Santu eta Agintarienganako jarraia; tankera; eragina.

1. *Alarries (El)*. Gasteiz. 1886. Hiruhilabetekaria. 500. karlista. Gogor erasoten du eta liberalizat jotzen ditu integrista eta dinastiaren zein karlistaren printzipioen aldekoa ez den edozer.

2. *Anunciador Vitoriano*. Gasteiz. 1877. Egunero jaiegunetan izan ezik. 700. Liberala erlijioa errespetatzen du.

3. *Arosar (El)*. Iruñea. 1893. Egunero jaiegunetan izan ezik. 400. Katolikoa. Doktrina santua eta Leon XIII.ak adierazitako bideetik egin beharra defendatzen ditu. Mentasun edo begirune handia die agintariari esanei.

4. *Bandera católica (La)*. Kalagorri. 1893. Astekaria. 250. Integrista. Alderdiaren printzipioak defendatzen ditu. Biziro karlisten aurkakoa.

5. *Basco (El)*. Bilbo. 1884. Egunkaria. 800. Karlista.

6. *Cantabria (La)*. Bilbo. 400. Integrista. Alderdiaren printzipioak defendatzen ditu. Tankeran egokia, mantzoa.

7. *Cántabro (El)*. Tolosa. 1878. 400. Karlista. Alderdiaren politika defendatzen du. Tankeran egokia.

8. *Concordia (La)*. Gasteiz. 1883. Astean hiru aldiz. 400. Demokratikoa, errepublikar jokaerak dituelarik. Ez dio etsaitasunik erlijioari.

9. *Demócrata (El)*. Kalagorri. 200. Ideia demokratikoen aldekoa.

10. *Diario de Alava (El)*. Gasteiz. Egunkaria. 500. Integrista.

11. *Diario de Bilbao (El)*. Bilbo. 1889 [?] Egunkaria. 500. Liberala. Ez da erlijioaren etsaia.

12. *Eco de Navarra (El)*. Iruñea. 1875. Egutero jaiegunetan izan ezik. 1.700. Katolikoa. Zertxobait kontserbadoreen aldekoa. Tankeran egokia eta ez da bertako prentsarekin eztabaidetan sartzen. Nafarroan gehien banatzen den egunkaria da.

13. *Fuerista (El)*. Donostia. 1888. Egunkaria. 450. Integrista. Tankeran moderatua.

14. *Liberal Navarro (El)*. Iruñea. 1886. Egutero jaiegunetan izan ezik. 500. Liberala. Begirunea die Aita Santu eta gotzaiari. Liberalismo eta zibilizazio modernoarenaganako zaletasuna agertzen du.

15. *Libertad (La)*. Gasteiz. 1890. Egunkaria. 600. Errepublikarra.

16. *Nervión (El)*. Bilbo. 1891. Astekaria. 800. Independentea. Errespetatzen du erlijioa.

17. *Noticias (Las)*. Bilbo. 1892. Egunkaria. 500. Errepublikar Zorrillazalea.

18. *Noticiero (El)*. Gasteiz.

19. *Noticiero (El)*. Bilbo. 1876. Astekaria. 1.500. Liberala. Berrie-mailea. Ez dio etsaitasunik erlijioari.

20. *Porvenir vascongado (El)*. Bilbo. Egunkaria. 500. Posibilista.

21. *Rioja (La)*. Logronio. 1889. Egunkaria. 1.000. Liberala. Berri eta albiste nahiko libreak, batzutan eskandalagarriak tartekatzen ditu. Telegrama ugari eta Probintziaren intereseko berriak dakartzalako bertako herri guztietan irakurria da.

22. *Tradición Navarra*. Iruñea. 1893. Egunero jaiegunetan izan ezik. 650. Integrista. Alderdiko printzipioen defendatzaile sutsua. Ez ditu beti baztertzen eragozpenak eta katolikoen artean zatiketak sortzen dituzten eztabaidak.

23. *Unión Vascongada*. Donostia. 1891. Astekaria. 440. Kontserbadorea.

24. *Voz de Guipúzcoa*. Donostia. 1885. Egunkaria. 1.500. Demokratiko aurrerakoia.

D. Beste datu estatistiko batzu

1. Aldizkarien sailkapena gaika. Prentsa katolikoa Hego Euskalerría

(Biztanleria: Araba-Bizkaia-Gipuzkoa: 510.194; Nafarroa: 307.994; guztira: 818.184.

Aldizkari politikoak: 3 / aleak: 2.400 (Araba-Bizkaia. Gip. + Nafarroa).

Aldikari karlistak: 4 / aleak: 2.700

Aldizkari integristak: 4 / aleak: 2.450

Zientzia, literatura eta abarreko aldizkariak:
2 / aleak: 1.900

2. Erlijioaren aurkako ez den prentsa

Aldizkari politikoak: 17 / aleak: 11.700

Zientzia, literatura eta abarreko aldizkariak:
7 / aleak: 5.500

3. *Erljioaren aurkako prentsa*

Literatura, pentsamendu aske eta abarreko aldizkariak:

2 / aleak: 1.700

4. *Laburpen estatistiko orokorra Estatu osoan*

Aldizkari katoliko politikoak: 96 / aleak: 115.945

Zientzia, liter. etab. aldiz. katolikoak: 108 / aleak: 165.820

Guztira: 204 / aleak: 279.765

Erljioaren aurkako ez diren

aldiz. liberalak: 668 / aleak: 1.028.785

Erljioaren aurkako aldizkari liberalak: 186 / aleak: 302.050

Guztira: 874 / aleak: 1.330.833

Estatuan argitaratutako aldizkariak

guztira: 1.078 / aleak: 1.610.600

Julen Urkiza